2007ko azaroa 65. zenbakia

# Aikor!

txorierriko aldizkaria

# Musika Eskola/ Kontserbatorio Publikoa Txorierrin?

Jürgen Wolf – Euskara Eguna – Azokak – Lourdes Goiri – CD Loiu

# GARAJE TURTENETXE, SA.

Lorategirako eta gurdiesako tresneria dugu... nahirakoa zarbitzua eskainiz dugu

ORAIN 380€

ORAIN 420€

ORAIN 597€

ORAIN 575€

199 € GATIK

ALDAYZE 2007 ERAGIKETA


Autonomia, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 477 29 18
Faxa: 94 427 29 16

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66


HONDA SABO ORE Kubota VIKING STIHL

**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
**e-posta:** aikortxori@yahoo.es
www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Erredakzio taldea:** Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Imanol Alvarez, Igor Urrutikoetxea, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juantxu Bilbao, Oihana Astobieta, Beitu aldizkaria eta Laura Martinez.

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi

**Banaketa:** Aikor!

**Maketatzailea:** Gaizka Eguskiza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 5.300

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

**AIKOR!** aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

diruz lagundutako aldizkaria


22 Lourdes Goiri

14 Euskara Eguna

26 CD Loiu

20 Zamudio eta Sondikako azokak

12 Jurgen Wolf

*AURKIBIDEA*

**4**Eritxia **5**Gutunak **6**Laburrak eta albisteak
**12**Gurean izan da... Jürgen Wolf
**14**Euskara Eguna **20**Zamudio eta Sondikako azokak
**21**Gabriel Etxebarria **22**Lourdes Goiri
**24**Aikor!lagun kanpaina **26**CD Loiu
**28**Baserri mundua **30**Teknologia
**31**Txorierri ezagutu **32**Sukaldaritza
**33**Denborapasa **34**Agenda

ZAMUDIOKO ESTANKUA
Tabakoak, ilunbea eta operiak

Ruben

BAR RAFI

# Eskubideak bete beharra



**IMANOL ALVAREZ**
*(Filosofian lizentziatuta)*

Etxebizitza eskubide bat da... hitz politak, egia potoloa. 23 urte ditut eta nik, behintzat, urrun ikusten dut nirea... 200 metro karratuko jauregi berritua? Ez, ez, bizitzeko txoko bat besterik ez! Baina betiko lez gauzak ez dira hain sinpleak, errealitatea edozein azalpen baino konplexuagoa izan ohi da...

Orain dela gutxi Dalai Lama izendatu, eta handik urte batzuetara uko egin zion gazte europar bati egindako elkarrizketa bat irakurri nuen. Budismoaren hausnarketarako gaitasuna eta mendebaldarren askatasunaren ideiak batera zitzakeen kultura batekin amets egiten zuen. Egia esan, europarrok ere askatasunaren hegaldia mugatu nahi izan genuen Frantziako iraultzan, baina horrek erraz jan ere berdintasuna eta laguntasuna. Maitale arriskutsuegia dela esan zuen Garik beste testuinguru batean, baina primeran dator hemen ere.

Etxebizitza eskubide bat da beraz, baina jabetza pribatua ere bai. Konstituzioak biak ala biak jasotzen ditu gainera, baina errealitateak bigarrenak lehena zapaltzea ahalbidetzen du. Konstituzioa eta errealitatearen artean aldea egotea posible dela pentsatzen hasia naiz jada... Kontuak kontu, bi eskubide kontrajarri ditugu hemen. Inolaz ere ez teorikoki, baina nabarmenki praktikan, etxebizitza beste negozio bat bihurtu den unetik; negoziorik borobilena hain zuzen.

Ulergarriak dira jabe askok dituzten beldurrak, arazoak sortzen dituen inkilinoa edo dagokiona ordaindu nahi ez duena, eta horregatik behar beharrezkoa da aldi berean prozesu legalen berriztapena zentsu honetan. Baina norabide honetan doazen neurriak proposatu dira aspaldian, eta momentuz gauzak ez dira asko aldatu. Jabetza pribatu baten kudeaketa arautzea mendebaldarrok hainbeste menderen ostean lortu dugun askatasunaren ideia garrantzitsuaren kontra joatea dela eman dezake. Banako batzuek negozio espekulatibo gisa erabiltzea beste batzuek lortu ezin duten oinarrizko beharrizan bat beste hainbeste kostatu zaizkigun giza eskubideen kontra joatea da, dudarik gabe.

Jabetza pribatua eskubide bat dela esan dugu beraz, baita horren kudeaketa ere. Baina etxe bat ez da luxuzko kotxea, plasma telebista edo diseinuzko altzairua. Etxebizitza eskubide bat da eta onartezina da oinarrizko eskubide batekin espekulatzea. Askeak gara nahi beste jabetza izateko, baita etxeak ere, baina askatasun horrek oinarrizko eskubide bat urratzen duen momentuan jabetza pribatu horren kudeaketa askeak zentzu guztia galtzen du, etxe hori merkatura atera behar da! Posible da espekulazioak eta lurraren negozioak aberasten dituen banku, promotore eta eraikitzaileak tartean egoteak zerikusia izatea neurri mota hauen bazterketarekin, noski...

Logika kapitalista baten barruan soilik uler daitekeen munduan bizi gara, zentzurik gabeko mundua gehienetan. Zentsurarik gabeko mundu hau, beharrezkoa denean. Izan dezaten etxe bat baino gehiago dutenek hausnarketarako gaitasun hori, bakarra erosteko ez dugunok gustura jarraituko baitugu banakoaren askatasuna errespetatzen. Horrela, Dalai Lamaren ametsetatik pixka bat hurbilago egongo gara, askoren ametsetatik, alegia.

# Myanmar Txorierrin dago

Duela gutxi arte gehienok nekez kokatzen genuen mapetan Myanmar (sasoi bateko Birmania), baina azken hilabeteotan behin baino gehiagotan ikusi ditugu manifestazioen irudiak, herritarren oldarraldi eta protestak, beldurraren gainetik herri xeheak 40 urte luze irauten ari den erregimen basatiari aurre egitea erabaki duelako. Bertako agintariek errepresio basatiarekin erantzun dute: atxiloketak, kartzelaratzeak, manifestazioen debekuak, alderdi politikoen ilegalizazioa, komunikabideen itxiera...

Zer dela eta, egiten zait guzti hori ezaguna Myanmar milaka kilometrotara badago? Ala ez? Akaso Myanmar etxean bertan, Euskal Herrian, dugu? "Ez da posible! Euskal Herrian demokrazian bizi gara!" esango du batek baino gehiagok. Baina azken urteotako gertakariak hortxe daude, tamalez: Egin, Egunkaria eta Ardi Beltza komunikabideak itxita; EH, Batasuna, plataforma herritarrak eta ANVko hainbat kandidatura ilegalizatuak, gazte erakundeak debekatuak...

**IGOR URRUTIKOETXEA**
*(LAB-Metalgintzako nazio mailako idazkaria)*

Hemen ere, Myanmar-en bezala, manifestazio baten parte hartzeagatik atxilotzen dute jendea, hemen ere manifestazioak ilegalizatzen dituztelako. Hemen eta orain, bilera baten parte hartzeagatik eta lan politiko soila egiteagatik joan zaitezke kartzelara Txorierriko Ibon Meñikaren, Aner Petralandaren, Joanaren eta beste askoren kasuek erakusten duten bezala. Bidegabekeria Txorierrin bertan dugu, ez dago Myanmar-era joan beharrik injustizia ikusteko.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkero, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

# Derio bizirik!

Alkate jaun agurgarria:

Kezkatuta gaude bailarako natur ingurunean izaten ari den narriaduragatik, Derioko hirigintzaren garapena delaeta. Geure begirada Artebakarra eta Mantuliz ingurura zuzentzen dugu batez ere, udalerriaren iparraldera. Makineria pisutsua urtebete baino gehiago dabil landaretzaren arrasto guztia ezabatzen ingurutik. Artxandatik Lañomendira edo Berreaga mendian zabaltzen den lur marroi eta beltza ikusteak mindu egiten gaitu lurralde hori maitatzen dugunok.

Ulertzen dugu herri baten hazkundeak alderdi positibo zein negatiboak dakartzala. Izan ere, ongi egindako lagin ugari daude. Uribe parkearen sorreraz dihardugu, Larrabarri baserriaren berritzeaz eta probasaio musikaletarako lokalaz, kiroldegiak eskaintzen dituen zerbitzuez eta abarrez.

Ez dugu dudarik lehen aipatutako lursailetan egingo diren etxebizitzak beteko direla eta bertan eraikuntzak egitea aspaldi baloratu eta onartutako erabakia izan dela. Baina ozen esan nahi dugu kalte izugarria egiten ari zaiela bertako ekologiari eta paisaiari; hau onartezina izango zen Europako beste herrialde batzuetan.

Non dago Agenda 21n Deriok ume bakoitzarekin hartu zuen konpromisoa? Zenbat mila litro gasolina erretzen dute kamioi horiek lurrean egiten duten mugimendu izugarri bakoitzarekin? Udalak gogo onez bultzatzen dituen ingurumen neurriak oso txiki geratzen dira hondamendi energetiko, material eta ekologiko honen aurrean.

Herritar guztiengan eta batez ere herrian haziko diren umeengan pentsatuz, eskatu nahi dugu ahalegin bat egin dadila egindako kaltea konpontzeko. Zuhaitzak ugari eta anitz landatzea proposatzen dugu, lur guztia ez lauzatzen saiatzea, belarra haz dadin uztea eta gune basatien alde egitea, non txoriak, urtxintxak eta karraskariak kokatzeko modua izan dezaten.

Pauso txiki-handi horiei esker, inguru ederra lor genezake, zeinetan umeak zelaietan jolas daitezkeen, eta gure agureak, basoetatik paseatu. Gure lurraldea emankorra da eta ez gaude ur gabezian, ezin gara konformatu hemen biziko ez den proiektugile batek proposatutako gune berde eskas batzuekin.

Gure esku dago lurralde alteratu horietan fauna eta floraren birsorkuntza, baina ekimenak agintzen dutenen eskutik iritsi behar du.

*Txorierriko bi gazte*

# Mingain urdin

Azaroaren 6an, Espainiako errege-erreginak Ceutan eta Melillan bisitari. Espainiartasuna gori-gori, gorri-gorri, hori! hori! Odol urdina omen.

Gurean berriz mingain urdina, komunikabideena. Bizkaian zein Gipuzkoan Correo Español zein Diario Vasco salduenen lehenengo orriko argazkian bandera hori-gorri ongi etorri. Editorialean, berriz, Ceuta eta Melilla Espainiaren proiektu komunean guztiz txertaturik omen buru belarri. Hau komunera joateko gogoa! Egunkari hauen irakurle fidel asko euskal abertzaleak omen. Nere ustez mingain urdin, bihotz hori, Espainiaren proiektuan guztiz txertaturik. Gora Espain Urdin! Espainiako ejertzitoaren militar burua berdin! Zuri-gorri zein zuri-urdin! Berdin-berdin!

*Mikel Larrañaga Azpiroz*

## Oker zuzenketa

- Aurreko alean Larrabetzuko eskupilota eskolaren gaineko informazioa eman genuen 10. orrialdean. Artikuluan esan genuen eskupilota eskolak Ondarreta zuela izena; hori, ordea, ez da zuzena. Larrabetzuko eskupilota eskolak Olarreta du izena.
- Beste alde batetik, "Roke deuna, aingeru zaintzailea, kanposantua, dana bat" artikulua argitaratu genuen 35. orrialdean. Hala ere, ez genuen idazlearen izena jakinarazi testuarekin batera. Artikulua Sabin Aranak idatzia da.



# Jokalarien bila dabiltza Iraultza areto-futbol taldeko neskak

Zamudioko areto-futbol taldeko neskak leku batetik bestera ibili dira azken urteotan. Zamudio Klubean hasi ziren, baina ez zuten entrenamenduak egiteko zelairik eta Derioko Pozgarri taldean sartu ziren duela urte bi.

Aurtengo denboraldian Zamudioko Iraultza areto-futbol taldeak eurekin entrenatzeko gonbidapena luzatu die, "eta gehienak zamudioztarrak garenez, baietz esan dugu". Iraultzako nesken areto-futbol taldekoek Txorierriko neska guztiak animatu nahi dituzte taldean sartzera. "Areto-futbolean aritu nahi dutenak gurekin harremanetan jar daitezke Iraultzaren bidez edo Naia Madariagaren bitartez".

## Liburu Azoka, Lezaman

Lezamako Udalak Liburu Azoka antolatu du abenduaren 17tik 21era bitartean. Azoka liburutegian egingo dute, eta bertara hurbiltzen direnek gaztelaniazko zein euskarazko material ugari topatuko dute ia debalde: liburu zaharrak, hiztegiak, eleberriak, ipuinak eta bideoak, esate baterako.

Beste alde batetik, Umeentzako Irakur Suspertze Programaren barruan ekitaldi bi egingo dituzte abenduan. Ipuin kontalari batek saioa eskainiko du hilaren 13an, eta hilaren 20an umeek idazle batekin aritzeko aukera izango dute. Tailer biak liburutegian izango dira arratsaldeko 6etan.

## Boisek alkate euskalduna izango du berriro

Dave Bieter Boiseko (Idaho) alkatea izango da beste lau urtean. Orain dela gutxi hauteskundeak egin dira eta demokratek botoen % 63,6 eskuratu zituzten. Bieter euskalduna da eta hemengoak ditu sustraiak, izan ere, Larrabetzukoa zen haren aitita.



Dave Bieter

# Azaroaren 30era arte aurkez daitezke lanak Derioko Argazki Lehiaketarako

Derioko Argazki Taldeak (DAT) Derioko IV. Argazki Lehiaketa jarri du martxan. Argazkigintza atsegin duten guztiek har dezakete parte, eta lehiakide bakoitzak hiru lan aurkez ditzake gehienez.

Lehiaketaren gaia librea da. Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan eginak izan daitezke eta tratamendu informatiko guztiak onartuko dira. Epaimahaiak teknika, laukiratzea eta konposizioa balioetsiko ditu.

Lanek gehienez 40 x 50 cm-ko neurria izan behar dute eta 40 cm zabal eta 50 cm luze den kartoi batean itsatsita aurkeztu behar dira. Atzeko aldean egilearen datuak jarriko dira: izena, telefono zenbakia, helbidea eta argazkilarien talderen batean badago, erakunde horren izena. Lanak Derioko Udal Liburutegian aurkez daitezke azaroaren 30era arte.

Sari banaketa abenduaren 15ean egingo da, 12:30ean, Larrabarri baserrian. Lan onenekin argazki erakusketa bat egingo da; hura egun horretan bertan inauguratuko da.

Epaimahaiak hiru sari emango ditu:

150 euro eta diploma, argazkirik onenari; 100 euro eta diploma, argazkirik originalenari; eta 75 euro, Derioko parte-hartzaileek egindako argazkirik onenari. Parte-hartzaile bakoitzak sari bat jasoko du gehienez. Informazio gehiago, **www.datfotoderio.com** webgunean.

## 'Katamalo' laneko abesti bat sarean jarri da entzungai

Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubak *Katamalo* musika-ikuskizuna aurkeztu zuen urte hasieran. Emanaldiak herri askotan egin dituzte eta ikuskizuna CD batean batu dute. Diskoa laster aurkeztuko dute eta hura zazpi kantuk osatzen dute. Haietako bat (Iruntzi dana) **http://www.myspace.com/katamalo** helbidean entzun daiteke.

## 'Familiak ere kontatzen du', Zamudioko liburutegian

Abenduaren 12an, eguaztenaz, saio berezi bat egingo dute Zamudioko liburutegian arratsaldeko 6etan: 'Familiak ere kontatzen du'. Ekitaldia haur eta gazteen sailean izango da eta umeei zein horien gurasoei dago zuzenduta.

Irakurketa suspertzen aditua den batek ipuina irakurriko die bertara hurbiltzen direnei, eta, era berean, liburutegian zelan konpondu azalduko die. Ekitaldiak familian irakurtzeko gogoa piztea du helburu; hala ere, leku-arazoak direla-eta hamabost lagunek baino ezin izango dute ekitaldian parte hartu.

'Familiak ere kontatzen du' ekitaldian interesa dutenek liburutegiko arduradunekin jar daitezke harremanetan telefono honetan: 944520204.



# Behar Bidasoa GKEren Gabonetako postalak salgai Txorierrin

Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeak (GKE) Gabonetako postalak salgai jarri ditu Txorierriko hainbat lekutan: Derioko Arinka liburudendan, Loiuko Estankoan, Zamudioko Zamudio Liburudendan eta Lezamako Gotzonen dendan, hain zuzen ere. Era beran, GKEra deituta ere lor daitezke: 944555058 / beharbidasoa@izar.net.

Postaletan GKErekin lan egiten duten hainbat boluntarioen lanak inprimatu dira; boluntario horien artean, Arte Ederretako ikasleak eta argazkilariak daude, besteak beste. Postal bakoitzak 0,75 euro balio du; hala ere, enpresetarako merkeagoak dira: 0,65 euro. Horrezaz gainera, enpresek postaletan eurek nahi duten marrazkia edo argazkia jartzeko aukera dute.

Postalen salmenten bidez bilduko den dirua Kolonbiako Pereira herrira bidaliko du GKEk, bertan dituzten proiektuak finantzatzeko.

## HIESaren gaineko erakusketak, Derion

HIESaren aurkako Bizkaiko hiru Gobernuz Kanpoko Erakundek –Asociación t4, Comisión ciudadana anti-Sida de Bizkaia eta Itxarobide Elkartea- gonbidatu dute Derioko Udala HIESaren aurkako III. Kultura Astean parte hartzera. Ondorioz, herrian gaixotasun horren gaineko erakusketa bi ikusteko aukera izango dugu.

Lehenengoak "Imagenes contra el SIDA" du izena eta bertan nazioarteko hainbat artistak HIESari buruz duten ikuspuntua azaltzen da. Erakusketa azaroaren 25era arte egongo da kiroldegian.

Mundu mailan hainbat kontzientziatzekanpaina egin dira HIESaren kontra eta horietako batzuk "SIDA 20 años de comunicación" erakusketan jaso dituzte. Erakusketa Plan Internacional Fundazioarena da eta abenduaren 3ra arte izango da ikusgai herrian.

Beste alde batetik, Udalak 1.000 preserbatibo pack banatu ditu herritarren artean. Ekimen horrek derioztarrak prebentzioaren garrantziaz jabetzea izan du helburu. Era berean, HIESa duten Afrikako umeen gaineko laburmetraia eman da eta hitzaldia ere egin dute.

# Txorierriko enpresa bik Lur Barriak saria jaso dute

Aurten Dertech Derioko enpresari eman diote Lur Barriak izeneko sari nagusia. Enpresa hori Koldo Picok, Violeta Fraguasek eta Rosa Fraguasek jarri dute martxan, eta bideo kontsoletarako marka propioko produktuen komertzializazioan eta banaketan aritzen dira.

Eskualdeko saria Ainara Derioko ile apaindegiak jaso zuen. Ainara Mendoza da ile apaindegiaren burua, eta dinamismoa, arintasuna, kalitatea eta prezio onak eskaintzen dizkie bezeroei. Txorierriko Behargintzaren bitartez, sei proiektu aurkeztu dira Lur Barriak sariketara. Beste eskualdeetan sarituak izan diren proiektuak honako hauek dira: Atuntxo zerbitzu nautikoak (Bermeoaldea), Fruteria Serbi Frutak (Mungialdea), Psikerlan (Erandio), Novelle (Getxo) eta Cyk Mantenimientos del Norte SL (Uribe Kosta).

Lur Barriak lehiaketa Bermeoalde, Erandio, Getxo, Leioa, Mungialde, Txorierri eta Uribe Kostako Behargintzen ekimena da. Ekimen horren helburua da enpresa kultura bultzatzea eskualde bakoitzeko ekintzaileen artean, lanbideratze era berrien alde egitea eta enpresa berriak sustatzea.

Aurtengo sari banaketa Josu Murueta Astrabuduko Kultura Etxean egin da. Han izan ziren lehiaketan parte hartu duten eskualdeetako alkateak, udal ordezkariak eta hainbat gonbidatu. Eusebio Larrazabal Lan eta Trebakuntzako foru diputatuak eman zizkien sariak irabazleei. Hark adierazitakoaren arabera, sari hauek oso inportanteak dira enpresa berrien sorrera sustatzeko.

# Joseba Gotzonek 'Padelitis' lana kaleratu berri du

Joseba Gotzon Loiuko kantautoreak lan berria du merkatuan. Horrek *Padelitis* du izena, eta bertan padela eta kirol horren inguruan dauden hainbat arlo lantzen dira era dibertigarri batean.

*Padelitis* lanarekin Joseba Gotzon pop-rock mundura itzuli da; hala ere, bertan beste musika mota batzuk ere batu ditu: ukitu hegotarrak eta flamenkoa, esate baterako.

Diskoa uztailetik irailera bitartean grabatu da Hondarribin, Marbellan, Madrilen eta Urdulizen, eta Hilargi Records eta KdK Produkzioak argitaletxeek ekoiztu dute. Hamar abestik osatzen dute eta musika-konponketak Pedro Hoyuelosek eta Mikel Errazkinek egin dituzte. Beste alde batetik, *Mi Argentina del alma* abestia grabatzeko, munduko padel jokalaririk onenak bildu dira: Belasteguín, Icíar Montes, Neki Berwig edo Alejandra Salaza, euren artean. La Oreja de Van Gogh taldeko Haritz Gardek ere parte hartu du abesti horretan.

Joseba Gotzonek datorren urtean ekingo dio *Padelitis* birari. Urtarrilaren 26an kontzertua eskainiko du Lleidan; urtarrilaren 27an, Bartzelonan eta urtarrilaren 28an, Madrilen.

# Begoñara erromes, datorren urtean ziur ezetz!

Athleticen aurreko denboraldiko partida bat ikusten ari zen bitartean, promesa egin zuen Ander Lekerika zamudioztarrak: "Bigarren mailara jaisten ez bada, Begoñara joango naiz oinez!". Eta lagun batek esan zion: "Eta ni zurekin". Promesa ahoz aho zabaldu zen lagun eta ezagunen artean, eta kartel bat ere jarri zuten herrian, zamudioztarrak eurekin joatera animatzeko. Azkenean 21 lagunek osatutako taldea abiatu zen Begoñara azaroaren 3an. Gehienak zamudioztarrak ziren, baina lezamarren eta derioztarren bat ere animatu zen erromesaldian parte hartzera.

Zamudiotik goizeko 11etan irten ziren Athleticen kamiseta jantzita, eta Begoñako basilikara eguerdiko ordu bata laurden gutxiagotan ailegatu ziren. Bidetik ez zitzaien damutu promesa egina; guztiz kontrakoa: "Herriko elkarte askotako lagunak batu ginen, eta edade guztietakoak, gainera. Oso ondo pasatu genuen eta esperientziak balio izan digu elkar hobeto ezagutzeko; izan ere, batzuek ez genuen elkar ezagutzen, edo harreman gutxi genuen elkarrekin".

Begoñan kandelak piztu eta bertako abadearekin berba egiteko aukera izan zuten. Adierazi zigutenez, asko dira Begoñara Athleticen alde eskatzera joaten direnak, baina argi utzi zien moduan: "Ama Birjinak ez du golik sartzen". Promesa bete ostean, Zazpikaleetara joan ziren indarrak berritzera eta parrandak iluntzeko 8ak arte iraun zuen. "Primeran pasatu genuen. Berriro errepikatzeko asmoa dugu; urtean gutxienez birritan egin beharko genukeela komentatu zen!". Ea hurrengoan Athletic ez dagoen bigarren mailara jaisteko moduan.

## Lezamako Udalak lokal berri bi atonduko ditu gazteentzat

Azken hilabeteotan Lezamako Udalak hainbat bilera egin ditu herriko gazteekin. Bilerek gazteen eskaerak ezagutu, eta horien beharrizanetara egokitzen den proiektu bat diseinatzea izan dute helburu. Gaia aztertu ostean, Udalak lokal berri bi atontzea erabaki du: bata, 10 urtetik 13 urtera bitarteko gaztetxoei zuzenduta egongo da, eta bestea 14 urtetik 18 urtera arteko gazteek erabili ahalko dute.

Azken lokal hau udaletxeko beheko aldean kokatuko dute; gaur egungo Gaztelekua dagoen lekuan, hain zuzen ere. Gazteek eurek kudeatuko dute lokala eta bertan egingo diren ekintzak erabaki eta antolatzeko aukera izango dute. Era berean, lokala euren erara apaindu ahalko dute. Atontze lanak datozen asteetan hasiko dira eta Auzolan programaren bidez egingo dituzte. Programa horrek lana eskaintzen die baztertutako pertsonei edota egoera horretan egon daitezkeenei. Beharretan 30.000 euro baino gehiago inbertituko dituzte eta beste konponketa batzuen artean, berokuntzako sistema jarriko da eta leihoak ere berrituko dira.

Beste alde batetik, 10 urtetik 13 urtera bitarteko gazteei zuzendutako lokala Garaioltza auzoko pisu berrietan egongo da. Bertan igeltsero-lanak, kanpoko arotzia eta intsonorizatze beharrak egingo dituzte, besteak beste. Beharrok laster hasiko dira eta datorren urtean zehar bukatuko dituzte. Lokalean 102.809 euro inbertituko dira; Foru Aldundiak 46.327 euro jarriko ditu, eta gainontzekoa, Udalak.

BBK 26
Erreferentziako kontrola.
Finantza-kontrolen erradioaren guztiekin eta gainera...
Bidaia-asistentziako doako asegurua
abantailak era guztietako 2.000 establecimenduetan.
Deskonturak
noiztik usain lizateke gilza..
Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es
orrian

Jürgen Wolf, Tandem fundazioko hizlaria

# “Hizkuntzarekin harreman emozionala izaten laguntzen digute Berbalagun proiektuek”

**Wolfek euskaraz hitz egiteko beldurra kentzen lagundu zigun joan den hilabetean. Tailerra Derioko Berbalagun taldeak antolatu zuen eta alemaniarrak gakoak eman zizkigun lotsa kendu ahal izateko.**

*Testua eta argazkia: Oihana Astobieta*

**Alemaniarra zara, baina euskalduna ere bai.**

Nortasun-agirian alemaniarra naizela dakar, baina nik hainbat hizkuntza ezagutzen ditut. Ondorioz, ez dut neure burua ezer berezitzat jotzen. Gizakia naiz, alemaniarra eta euskaldun berria ere bai. Dena dela, aspaldi honetan ez dut asko euskaraz hitz egin, jendeak aprobetxatzen baitu nirekin alemanez aritzeko.

**Noiz ikasi zenuen euskara?**

Duela 20 urte, Madrilen. Euskal Herrira 1988. urtean etorri nintzen lehendabiziko aldiz. Neskalagunak Bilbora etorri behar zuen, garai hartan egiten zebilen tesia dela-eta. Ni ere animatu nintzen bertora etortzera, baina Bilbora baino, Donostiara joan nahiago izan nuen.

**Derioko Berbalagun Tximintx euskara elkartearen ekimena da. Zertan laguntzen dute proiektu horiek hizkuntza baten ikaste-prozesuan?**

Hizkuntza horretan hitz egiteari diogun beldurra kentzen, gramatika praktikan jartzen, gauzak hobeto gogoratzen… Horretaz aparte, hizkuntza pertsona bihurtzen da, hau da, hizkuntza horrekin harreman emozionala izaten laguntzen digute. Eta beste mundu batean murgildu ere egiten gaituzte. Euskaldunen mundua beste mundu bat da, eta Berbalagun bezalako ekimenek mundu horretara eramaten gaituzte.

**Eta nola galdu euskaraz hitz egiteko lotsa?**

Ba, ekimen horiek erabat baliagarriak dira. Ikasten dabilena babestuta sentitzen da: beste pertsona biren aurrean hitz egingo du, baina horiek ez diote hainbeste zuzenketa egingo. Elkarrizketa nagusi da, eta zerbait ulertzen ez badu, galdetzen du lasai asko. Era berean, besteek hitz egiteko orduan erabiltzen dituzten esamoldeak-eta bereganatzen ditu. Horrek asko laguntzen du, izan ere, gauza bat da hizkuntzaren gaineko teoria ikastea, eta beste bat, hizkuntza hori erabiltzea.





# EUSKARAREN EGUNA TXORIERRIN 2007

## AZAROAREN 30EAN

"BAZEN BEHIN ZIRKOA" . 9.30 -12.00 . (Bi saio)

(Derioko polikiroldegian. 4-5-6 urtekoentzat)

## ABENDUAREN 1EAN

20.00etan ETBKO "Euskal Kantarik Onena ZUZENEAN"

**Deriko Irunlatan. SARRERA: 2 e.**
Sarrerak salgai :
Arratsaren 30etik 17:00 ak arte:
MANKOMUNITATEAN
LEZAMA, LARRABETZU ETA
SONDIKAKO UDAL LIBURUTEGIETAN LOIU,
DERIO ETA ZAMUDIOKO UDALETXEETAN
Abenduaren 1ean, Derioko polikiroldegian 10:00etatik 20:00 ctara.

## ABENDUAREN 2AN



"GOI MAILAKO BERTSO SAIOA"
Derioko Gaztetxoetan, 19:00etan. Sarrera doan.
Hartzekoak:
Xabier Paiz, Amor Mendiluze, Sustrai Colina eta Jon Maia

## ABENDUAREN 3AN





"MAGIC CLOWN".
Gaztetxoetan 9.30 12.00 (Bi saio) ( 7 8 9 urtekoentzat)

"IÑAXITOREN AMETSAK" BERTSO-ANTZERKIA 10etan,
Derioko polikiroldegian. (10-11 urtekoentzat)

## ABENDUAREN 4AN



"LARRU HAIZETARA"
arratsalde Derioko Gaztetxoetan 17:30etan. (Guztientzat)

Laura Martinez, Mankomunitateko euskara teknikaria

# “Hemendik 20 urtera Euskara Egunik ez badago, xanpainarekin ospatuko dugu”

**Abenduaren 3an Euskara Eguna ospatuko da eta data horren inguruan hainbat ekitaldi edukiko ditugu Txorierrin azaroaren 30etik abenduaren 4ra bitartean. Euskara Egunak 7. edizioa beteko du aurten, eta Derio izango da horren eszenatokia.**

*Testua eta argazkia: Itxaso Marina*

**Txorierritar guztiengan pentsatuz antolatu dituzue ekitaldiak: umeentzako zein gazteentzako antzerkiak, helduentzako bertso-saioa, EKO musika-ikuskizuna… Hala ere, eskoletako ikasleek ekintzetan partehartze handiagoa izatea nahi izan duzue eta nobedade batzuk egongo dira…**

Bai, gure helburua, umeak ekitaldiak ikusi ez ezik ekintzetan bertan ere inplikatzea izan da, eta horretarako egun batzuk lehenago eskoletan ekintza horiei buruzko prestaketak egingo dituzte. Horiek horrela, eurei zuzenduta dauden ekitaldien aurretik ekintzen aurkezpena egin dezatela pentsatu dugu. Euskara Eguna aurten Derion ospatuko dugunez, bertako eskolako umeak izango dira beste eskoletakoei aurkezpena egingo dietenak, eta datorren urtean dagokion herriko umeak izango dira aurkezleak. Beste alde batetik, *Lau teilatu* abestia hartu eta Txorierrirekin lotutako hitzak jarriko dizkiote abestiari bertsogintzan dabiltzan gaztetxoek, ume guztiek ikas dezaten. Era berean, eskola bakoitzak hizki batzuk hartuko ditu ‘euskara’ hitzetik, eta eskoletan kartulina desberdinetan margotuko dituzte. Gero, eszenatokian guztion artean osatuko dute ‘euskara’ hitza, ume guztiek *Lau teilatu*ko “txorierritarren bertsioa” abesten duten bitartean.

**Batzuk eskola pribatuetako umeek ezin dutela Txorierriko Euskara Egunean parte hartu kexatu dira…**

Lehenengo eta behin, aztertu beharko litzateke Txorierriko zenbat ume dauden eskola pribatuetan, eta portzentajea oso txikia izango litzateke, ziur asko. Gure filosofia hau da: gauzak bertokoentzat antolatu behar ditugu, eta eskola publikoetan dauden ume guztiak Txorierrikoak dira, salbuespen barik. Badakigu, idealena Txorierrira ikastera datozenentzat eta ikasle guzti-guztientzat ekintzak prestatzea dela , baina kasu honetan kopuruak itzel igoko lirateke eta antolakuntza aldetik ezingo genioke aurre egin.

**Ekitaldiak eskolako ordutegitik kanpo egitea konponbidea izan liteke.**

Baina eskarmentuagatik badakigu jende gutxi hurbiltzen dela eskola-orduetatik kanpo antolatzen diren ekitaldietara. Herri bereko umeak hurbil litezke, baina beste herrietakoak, ostera, oso gutxi. Ekitaldiak eskolako ordutegiaren barruan egiten badira, berriz, mugimendu eta partehartze itzela egoten da.

**Zein helburu du aurtengo Euskara Egunak?**

Urtero duena. Tristea da Euskara Eguna egin behar izatea, baina uste dut urteetan egiten jarraitu beharko dugula. Helburua jendea euskararen inguruan kontzientziatzea da, umeek euskarari buruz hitz egin dezatela egun batzuetan behintzat, euren artean euskaraz egin behar dutela kontura daitezela… ez dakit horrekin lortzen den ala ez. Urtean zehar hainbat kanpaina egiten dira euskararen inguruan, eta gauza txiki horiekin zerbait handia lortuko ahal

> *“Erdaldunei zuzendutako hainbat kanpainak antolatzen dira urtean, baina hori gutxika-gutxika jorratu ahal dugun bidea da”*

da! Guk, behintzat, horren itxaropena dugu.

**Aurreko edizioei begira, zelan izan da partehartzea?**

Ekintzen arabera. Batzuk oso arrakastatsuak izan dira; Benito Lertxundiren iazko kontzertua, esate baterako, eta beste batzuk ez hainbeste. Hala ere, aurretik sumatu ezin den kontua da hori: batzuetan ekitaldi batek arrakasta itzela izango duela pentsatzen duzu, eta ez da horrela izaten. Edo alderantziz.

**Txorierri, berez, eskualde euskalduna da; hala ere, gaztelera nagusi da berton.**

Kanpotar asko datozkigu bertora bizi izatera eta horiek gazteleraz egiten dute. Txorierriko populazioa gora doa etengabe eta ondorioz, eskualdea erdaldunduz doa. Kanpainak egiten dira jende erdalduna euskara ikastera animatzeko, seme-alabak D eredura eramateko… Baina gutxika-gutxika jorratu ahal dugun bidea da; ez urte batean edo bitan, baizik eta urte askotan. Beste alde batetik, bertokoak ere animatu behar dira euskaraz egitera edo dakitena erabiltzera.

**Mankomunitatetik hainbat kanpaina aurrera eraman duzue –merkataritza arloan, eskoletan, udaletako barne planak, elkarteei zuzendutakoak…- baliagarriak dira horiek benetan?**

Guk espero genuena baino okerrago atera diren gauzak egon badaude: seme-alaba euskaldunak dituzten guraso erdaldunei zuzendutako hitzaldiak, adibidez. Baina arrakasta izan duten hainbat ekimen ere badaude: euskararen aldeko jaietara joateko autobusak, Berdinean ere, eman euskaraz kanpaina, elkarteei zuzendutako itzulpen zerbitzua, merkataritzan aurten egin ditugun bi kanpaina bereziak…. eta abar. Gure eginbeharra Txorierri ahalik eta euskaldunena izatea da, eta hori lortzeko ahaleginetan jarraituko dugu.

**Lehen aipatu duzun moduan, tristea da Euskara Eguna ospatu behar izatea.**

Bai, beste hizkuntza batzuek ez dute horrelakorik behar, erdarak edo ingelesak adibidez, eta Euskara Eguna existitzen den bitartean, oraindik ere beharrizan handia dagoela esan nahiko du horrek. Beno, halako ekintzen bidez euskara erabiltzea lortzen da, behintzat… Hemendik 20 urtera Euskara Egunik ez badago, xanpainarekin ospatuko dugu. Bitartean, txorierritar guztiak antolatutako ekintzetan parte hartzera animatu nahi ditugu. Guztiontzako ekintzak daude eta ondo pasatzea eta euskara erabiltzea da gure helburua.

*Larru haizeetara* antzelana aurkeztuko dute Ez dok hiru teatrokoek

Xabier Payá

Zirika Zirkus taldea

# Musikaren patroiari erreguka eta administrazioari arrenka

## Behar dogu. Santa Zeziliari eta Mankomunitateari eskatu deutsegu Txorierrirako Musika Eskola/Kontserbatorio Publiko bat

Hilaren 22an ospatu dogu. Santa Zeziliak lagundu beharko deusku musikearen inportantziaz jabetzen eta kontzientzia hartzen. Ikerlariek aspalditik dabilz esaten hezkuntza musikal eta artistiko ona hartzen daben umeek asko hobetu daikiela matematikarako eta irakurketarako kapazidadea eta baita beste gaitasun kognitibo batzuk be. Gaur egun badakigu musikeak eragin positibo itzela daukala gizakiaren garapen sozio-emozionalean be, psikoterapian ikusten diren emoitza interesgarriak ahaztu barik. Irakasleen esperientziak esaten dau musikara dabilen ume edo gazteak burua hobeto "antolatuta" daukala eta taldean lan egiteko edo besteakaz erlazionatzeko erraztasun handiagoak irabazten dituela. Ekialde eta Erdialdeko Europako estaduetan urteetako esperientziak be argi uzten ditu musika hezkuntzaren onurak, bai gizakiarentzako eta bai gizartearentzako… "Musikak poztutzen ez duena, ez da parte onekoa" (G. Garate, atsotitzak). "La música amansa a las fieras" (erdal atsotitza). Baina une honetan garestia da erremedio barik Txorierrin musika ikastea. Kirolean eta beste arlo batzutan, zorionez, diru publiko asko erabiltzen da. Lagunduko ete deusku Administrazinoak musikea be diruz eta azpiegituraz danontzat eskuragarri ipinten? Hauxe da aurkitu dogun panorama, mahai gainean itxiko dogu eztabaida…

*Testua eta argazkiak: Pospolin*

Tere Loroño, Larrabetzu eskolaren sortzailea

## "Ahalegin handiak egin dodaz Txorierriko Kontserbatorioaren alde"

Bera da "Larrabetzu" Musika Eskolaren sortzailea eta jabea. Eskola pribatua da eta Txorierrin musika ikasteko leku bakarrenetakoa.

**Zenbat urte musika irakasten?**

Ni neu lehenago hasi nintzen arren, irakaskuntza arautu modura 18 urte daroaguz.

**Publikoak dino musika ikastea garestia dala...**

Behar bada bai, eta ulertzen dogu, baina jendeak ulertu behar dau guk ez daukagula subentzinorik eta irakasleei soladata duin bat emoteko kobratu behar dogula derrigorrez. Bestalde, askotan musika baino inportantzi gitxiagoko gauzetan diru gehiago gastatzen dogu.

**Beste leku batzutan, Mungian edo Leioan esaterako, merkeago da musika ikastea**

Inguruko planteamenduak desberdinak dira: Mungia herri handia da eta Leioa oraindiño handiagoa. Txorierri herri txikiz osatuta dago, beraz Mankomunidadearen planteamendua izan beharko leitike, ezinezkoa dalako herri bakotxean musika eskola bat eukitea.

**Orduan, Mankomunidadean bideragarri ikusten dozu kontserbatorio/musika eskola publikoa ipintea?**

Nik uste dot eskola erdi publiko bat behintzat martxan jartzea posible dala, daukagunetik hasita, daukaguzan irakasleak eta ikasleak aprobetxatuta. Ume txikien kasuan, irakaslea joan beharko leitike herri bakotxera eskolak emotera, zenbat eta hurrago hobeto da-eta. Gero, adin batetik gora, aurrera egiten daben ikasleak zentro baten kontzentratuko neukez, kontserbatorio izenagaz edo Mankomunidadeko musika eskola izenagaz edo dana dalakoa. Borrokatu dot horren alde, Administrazinoagaz batzartuz, txostenak prestatuz, arduradunekaz berba eginez… eta, jubilatu orduko neure ilusinoa izan da zelan edo halan hori bideratzea, azken baten bideak erraztuz musikea bultzatuko dogula-

ko.
Gainera, uste dot prozedura desberdinak dagozela: modu errazenetik hasita, ikasleei udaletatik diru-laguntzak emonez; Arratian, Ermuan eta beste leku batzutan egiten dan moduan, konkurtso baten bidez edo dana dala zerbitzu hori emoteko enpresa bat kontratatzen da, zerbitzu publikoa eskainiz eta bide batez Udalei guzti horren kudeaketa errazteko (irakasleen kontratazinoa, instrumentuen eskaintza, musika taldeak sortzea, planifikazioak eta estrategiak…); Elgoibarko kasuan Udalak ipinten dauz lokalak eta subentzinoa baina guraso alkarte batek daroa gestinoa; gero, badagoz Leioako edo Mungiako ereduak. Eredu bakotxak bere aldeko eta kontrako puntuak ditu.

**Zer eskatzen deutsezu, bai gurasoei eta bai Administrazinoari, musikearen alde egiteko?**

Batez be pazientzia eta konstantzia eskatuko neuskie gurasoei, musika ikasteak ume eta gazteei onura asko ekarriko deutsie-eta, bizitza guztirako da-eta. Administrazinoari kontzientzia gehiago eskatuko neuskio, musikea aintzakotzat hartu dagiela.

## Balentin Atxotegi, Leioako Udal Kontserbatorio/Musika eskolaren zuzendaria

# "Behar da Musika Eskola Publikoa"

Eurena zentro mistoa da, musika eskolea eta kontserbatorioa. Leioako umeek gura daben mailara arte euren herrian egin ahal dabe.

**Zer daukazu esku artean?**

Ia 700 ikasle daukagu. Hortik 500etik gora musika eskolan babilz eta beste ehun batzuk erdiko mailan kontserbatorioko ikasketak egiten. Hemen herriko umeak 7 urtegaz sartzen dira musika eskolan, irakaskuntza ez arautuan. Ikasturte bi daukiez danak bardin hizkuntza musikala eta instrumentua ikasteko eta hirugarren kurtsoan bide bi zabaltzen dira: bide normala edo ez arautua eta irakaskuntza errefortzatua deitzen dan beste bide bat, ikasle hautaketa bat eginez, onenak edo talentudunak hartuta. Bide honetatik doazenei azterketa bat egiten jakee gero kontserbatorioan erdiko graduan sartzeko. Oso txiki geratu jaku musika eskolea.

**Zer behar da hori lortzeko, dirua, borondate politikoa edo beste zeozer?**

Lehenengo eta behin dirua behar da, eta horretarako Administrazinoko arduradunek kontzientziatu eta ados jarri behar dabe. Futbol-zelaiak eta kirol instalazinoak errazago egiten dira. Musikearen kasuan, alkate edo zinegotziren batek indar egiten badau edo guraso alkarteak eta partikularrak eskatu eta eskatu badabiz, azkenean lortu egiten da, baina zerutik ez dator ezer.

**Zelan sortu zan zuena?**

Badira 26 urte, Leioako "San Juan Bautista" abesbatzaren eta orduko bere zuzendari Jose Ignacio Sarriaren ekimenez sortu zan. Momentu honetan, maila desberdinetan zentroan 4 orkesta, 2 banda, 6 koru, big-ban eta 8 edo 9 talde instrumental (gitarra, soinua, txistua, klarinetea…) daukaguz. Inportanteena da umeek oinarrizko formazino musikala jasotzea. Zazpi urtegaz hasten dira; gero, gitxi gorabehera hamabi urtegaz, batzuk kontserbatoriora sartzeko azterketa egiten dabe, DBHko lehenengo mailan dagozenean eta urtero daukagu ikasle kopuru bat batxilergoa amaitu eta gugaz 6. maila egiten dabenak, Musikenera edo unibertsitatera pasatzeko eta musika profesionalean jarraitzeko prest egoten direnak, arlo guztietan ikasleonak izaten ei direnak.

**Zelan ordaintzen da guzti hori?**

Gure kasuan, gurasoek %33a ordaintzen dabe, Udalak %50a baino gehiago eta falta dan bestea Eusko Jaurlaritzak. Kontserbatorioko ikasketak garestiagoak dira, ordu gehiago ematen dalako, baina proportzino berean ordaintzen da.

**Zelan ikusten dozu kanpotik baina hurretik Txorierriko kasua?**

Beharrezkoa da musika zentro publiko bat. Txorierriko kasuan, uste dot soluzinoa erraza izango litekeela, herrietako udalak ados jartzen badira eta mankomunidade mailan zeozer egiten bada. Zelan edo halan, zuen eskubidea da, zergak ordaintzen dozuez-eta. Hasteko musika eskola publiko bat egin beharko leukie irakaskuntza ez arautua eskainiz eta ez kontserbatorioa (kontserbatorio bat mantentzea oso garestia baita). Prest nago edonori gure esperientzia azaltzeko edo laguntzeko.



**Zer daukazu esku artean?**

Herriak 15.000 biztanle inguru daukaz eta une honetan 690 ikasle daukagu musika eta dantza ikasten, 21 irakasle musikarako eta beste 10 dantzarako. Laster beteko dira 30 urte musika eskola hasi zanetik edo behintzat Udalak bere ardurapean hartu ebanetik. Dantzagaz hasi barriak gara, 6 urte daroaguz. Ikasteko plaza gehienak Mungian erroldatuek betetzen dabez lehentasuna daukielako, gitxi-gitxi batzuk eskualdeko herrietatik datoz. Hainbat koru, lau talde instrumental misto, gitarrako hiru talde, soinu talde bat, txistu talde bat, trikitixa, fanfarria bat… Gure helburu nagusia hezkuntza musikala bada be, herritik be kontzertuak eta entzunaldiak emoten doguz sarri-sarri.

**Irakaskuntza ez arautua emoten dozue. Zer esan gura dau horrek?**

1992an LOGSE etorri zanetik, musikea ikasteko bide bi zabaldu ziran: arautua eta ez arautua, titulua lortzeko edo/eta musikearen arlo profesionaletik joateko bidea eta zaletasunez musikea ikasteko bidea. Harrezkero, Eusko Jaurlaritzak ordura arte oinarrizko gradua modu arautuan ematen eben udal musika eskolei ez arautura pasatzea eskaini eutsien, herrietan edo eskualdeetan jendeari musika ikastea erraztuteko sare antzeko bat egiteko asmoz, ez bakarrik gura daben umeei edo gazteei musika profesionalera pasatzen laguntzeko, baita helduei edo edonori profesional izan barik ikasten edota entzuten laguntzeko. Horretarako ondo datoz musika eskolak.

**Gero Musika Eskolen Elkartea (EHME) be sortu zan…**

Bai, Euskal Autonomia Erkidegoan 56 musika eskola gara alkarte horretan, 1.200 irakasle eta 22.000 ikasle. Hiru edo lau pribatuak dira baina alkarte horretan finantziazino publiko zabala daukiezan eskolak baino ez dagoz. Gipuzkoako gehienak, ez hemengo modura, subentzino publikoak jasotzen dabezan fundazino edo guraso alkarte eta taldeak dira. Hamabost urteko bidea da hori eta ondo ikusten dot, ze ezin gara danok profesionalak izan, baina bai afizionatuak, jotzerako mailan edo entzuterako eta musikea ondo apreziatzerako mailan.

**Baina, zelan egiten da finantziazino hori?**

Esan dogun sare hori eratzerakoan, Jaurlaritzaren konpromisoa izan zan gurasoek hiruren bat, Udalek beste bat eta Jaurlaritzak bestea ordaintzea. EHMEtik lortu dogu konpromiso horren zati bat betetzea: une honetan Jaurlaritzak %20a edo ordaintzen dau. Falta dan %13 hori normalean udalek osotzen dabe eta kasu batzutan gurasoek eurek. Hurrengo laubost urteotako erronka izango da Jaurlaritzak konpromisoa osorik bete dagiala, aurrekontuetan diru kopuruak igotzen joanez.

**Larrabetzukoa pribatua eta arautua, Leioakoa mistoa (musika eskola eta kontserbatorioa, arautua eta ez arautua) eta Mungiakoa ez arautua bakarrik. Zeintzuk dira eredu bakoitzaren alde onak eta txarrak?**

Askotan aurrez aurre ipini dira eredu biak, arautua eta ez arautua. Nire ustez osagarriak dira. Ez arautuak lehen hez-

kuntzako eskola modukoak izan behar dogu. Gero, gura dauana edo talentua daukana pasatu leitike arautura, eta aurrerago Musikenera. Desberdintasun nagusia, irakasleko ikasle gitxiago izatetik aparte, ikasleak zentroan emoten dauan denporean dago: arautuan denbora gehiago, jakina; horrek esan gura dau garestiagoak direla, hori be jakina. Bestalde, arautuan azterketak egin behar dira eta irakaskuntza dekretu baten bidez planifikatuta dago. Baina uste dot gura eta balio dauena eskola ez arautuetatik be heldu daitekeela leku berera, azken baten ondo edo txarto ikastean dago diferentzia eta musika eskola ez arautuetan be oso ondo ikasi daiteke, bai hizkuntza musikala eta bai instrumentuak; ikasketak guk be planifikatu egiten doguz, baina askatasun eta malgutasun gehiago daukagu eta eskaintza zabalagoa emon daikegu.. Hemen musika afizionatuak azterketarik egin barik ondo formatu leikez eta hemetik musika arautura edo profesionalera be joateko ikasle asko prestatzen doguz.

**Zer eskatzen deutsezu, bai gurasoei eta bai Administrazinoari, musikearen alde egiteko?**

Ikerketak aipatu beharrean, hauxe esango neuskie biei be: hezkuntza integralerako oso ondo datorrela musikea ikastea. Arlo asko lantzen da musikearen bitartez: sentsibilidadea, elkar lana, gauzen kostua jakitea, ahalegina, arrakasta eta porrota gureganatzea… Musikari ona edo txarra izatetik aparte pertsonak hobeak izateko be balio dau. Administrazinoari, zehatzago, beste hau be esango neuskio: kultura ez dala gastu bat, pertsonengan egiten dan inbertsino bat baino.

Joan Migel Atxutegi, Txorierriko Mankomunidadeko kudeatzailea

# "Ordubera, ikaslearentzako diru-laguntzak emotearen bidetik joko da"

Administrazinoan esperientzia handia dauka. Hainbat urtez Derioko alkate izan ostean, Txorierriko Mankomunidadeko kudeatzailea da orain, eta musika zalea betidanik. Beti esaten dau bere oraingoa ez dala kargu politikoa eta erabakiak alkateek edo udal ordezkariek hartzen dabezala. Aikorrek! gaia mahai gainean ipini deutso.

**Txorierritarrak eta batez be eskola-umeak daukiezan gurasoak musika ikastea garestia dala kexatzen dira askotan. Zer uste dozu zuk?**

Ulertzen dot hori, neuk be semea daukat musika ikasten-eta. Une honetan, Txorierriko udalerri guztietan kontzertu edo entzunaldietarako eta abesbatzei edo musika alkarteei emoten jakien diru-laguntzetatik aparte, badakit Zamudion eta Derion behintzat subentzino partikularrak be emoten direla musika ikasten dabizenentzako.

**Inguruko beste esperientzia bi aztertu doguz, Leioakoa eta Mungikoa, eta eredu diferenteekaz beste modu batera kudeatzen da; merkeagoa da herri horreetan musika ikastea.**

Txorierrik daukan distribuzinoa desberdina da. Herri txikiz osotuta dago eta eziezkoa leitike bakotxean musika eskola bat montatzea. Mankomunidade mailan, behar bada, zeozer gehiago egin ahal da, baina kostu handia ekarriko leuke horrek, azpiegiturak (eraikinak eta lokalak), irakasleriaren kontratazinoak, garraio sistema eta beste hainbat gastu.

**Hain inportantea dan musika hezkuntzari laguntzeko nahikoa egiten dala uste dozu?**

Une honetan ez dago alkateen agendan, garestia eta konplexua dalako eta beste lehentasun batzuk daukiezelako euren herrietan. Edozein kasutan, agendan ez badago be, euren buruan badagoela esan daiket: ordubera ikasleentzako beka edo diru-laguntzen bidetik joko dabe eta etorkizunean beste bide batzuk be jorratuko dira.

**Zuk zeuk, txorierritar eta musika zale legez, zelan ikusten dozu etorkizuna?**

Uste dot borondatea eta sentsibilitatea badagoela eta aurrera pausuak emongo direla. Gauzak ez dira egun batetik bestera egiten eta nik neuk, hasteko, datuak batzeko estudio bat egitea eskatuko dot: dagozen baliabideak, ikasle potentzialak, beharrizanak, beste musika eskola batzuetako datuak eta esperientziak…

# Zamudioko Azokea, h produktuen eta kalitatearen

Zamudioko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Azokeak gainditu egiten dau urtero aurrez ikusitakoa: zemendiko lehenengo domekan milaka eta milaka jente batu zan azokan. Aurtengoa hogeita hirugarren azokea izan da.

Laurogeita hamar produktore inguru etorri ziran Euskal Herriko bazter askotatik. Eurakaz ekarri zituen barazkiak, gaztaiak, pastelak, txakolina, lorak… Txakolina edan eta taloa txorizoagaz jateko aukerea be izan zan. Eta hori guztia, giro onean.

Beste alde batetik, Limusin Arrazearen Euskadiko Txapelketea egin zan domekan eta zapatuan. Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako 18 ganadutegik hartu eben parte, eta 100 buru baino gehiago lehiatu ziren. Honako honeek izan ziran saridunak:

Juan Carlos Santiesteban (Sopuerta): ganadutegirik onena; behi txapelduna eta bigantxa txapelduna.

Fernando Heras (Zalla): zezenik onena.

Iñaki Zunzunegi (Zumarraga): zekor txapelduna.

Buru batzuk erematean atera ziran. Zamudioko ganaduzainen erakusketea be egin zan.

# Ardiak izan ezik, denetarik Sondikan

*Testua eta argazkiak: Jon Goikouria*

Aurten ere, jende mordoa bildu du Sondikak negu hotzaren atarian sartzear gaudenean; joan den azaroaren 11n, Nekazaritza, Artisautza eta Abeltzaintza Azokako XI. edizioa ospatu zen Txorierri bailarako herrixkan. Oskarbi eta hotz jaiki zen eguna, eta horrela mantendu zen azken orduetaraino. Goizeko 10:00etan hasiera eman zitzaion ekitaldiari, eta eguerdiko 14:30erako bukatutzat eman zen. Ez zen ia ezer falta izan. Goizeko lehen orduetan goiztiarrak baino ez ziren hurbildu herrira, eta eguerdirako jendez gainezka zegoen Sondika. Ez zegoen autoa non aparkatzerik.

Bertan izandako jarduerak aurreko edizioek izan zituztenen antzekoak izan ziren: goizeko 11:00etan Bizkaiko txakolina eta Idiazabal gaztaren dastatzea egon zen. Ondoren, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara, zaldien hezkundea ikusteko aukera izan zen. Azken jarduerak 12:00etatik 14:00etara egin ziren. Ordu tar-

# emengo
# n erakusgarri

te horretan, abereen ferratzea ikusteko aukera egon zen tren geltokiko aparkalekuan. Horrez gain, une berean, umeentzako jarduerak antolatu ziren herriko plaza nagusian: Ponnyak eta herri kirolak, zehatz-mehatz. Gainera, dultzainak eta txistulariak jo eta su aritu ziren goiz osoan.

Hala ere, aurten, 'mihi urdinaren gaitza' dela eta, faltan bota izan dira ardiak, eta horren ordez, Bernardo kultura saileko arduradunak azaldu zigun moduan, aizkolariak izan ditugu gure artean.

Ikusi denez, ardiak izan ezik, denetarik ikusi, entzun eta, jakina, dastatu izan zen aurtengo Sondikako Nekazaritza, Artisautza eta Abeltzaintza Azokako XI. edizio honetan.

Gabriel Etxebarria

# "Done Jakue bidea egin gura dot zaldiz"

**Ez zezenak, ezta behiak be. Zamudioko Azokara hurbildu ziran umeengan ikusmin handiena sortu ebenak 'Potxolo' eta 'Trueno' izan ziran. Gabriel Etxebarriarena zaldiak dira, eta guraso batzuk 20 minutuko ilarak egin behar izan ebezan, seme-alabak euren gainean ibili ahal izateko.**

*Testua: Itxaso Marina*

**Azokan orain dala hiru urtetik hona parte hartzen dozu, baina aurtengoa umeak zaldien ganean ibili dozuzan lehenengoa izan da…**

Gauza kuriosoa gertatu jatan. Ume bat eta horren gurasoak nahiko goiz etorri jatazan eta jente gitxi egoanez, pentsatu neban: 'Honi graziaren bat egingo deutsat". Eta zaldi baten ganean ibili neban. Baina, jakina, ume gehiago etorri ziran eta eurei be grazia bera egin behar.

**80 ume inguruk zure zaldiez gozatzeko aukerea izan eben…**

Zaldiak umeei asko gustatzen jakien animalia dira. Politak dira eta beste pizti batzuk baino erakargarritasun handiagoa daukei, ganean ibili leitekezalako. Aurpegian igartzen jake umeei zaldiaz gozatzen dabela, eta horrek be gozamena emoten deust niri.

**Zein da 'Potxolo' eta 'Trueno'ren historia?**

Baserrian zaldia betidanik izan dogu, soloan lan egiteko. Baina ni ez nintzen inoiz bere gainean ibili, eta zaldiakazko zorra neban. Neure baserria eta lurra izan nebazanean, behor bat erosi neban eta horren ostean, 'Trueno'. Hori zaldi arrunta da. 'Potxolo' Mirandan erosi neutsan ijito bati. Zaldi ingelesa da eta ondo hezita dago. Mantsoa da, baina, era berean, bizia. Eta lauhazka dabilanean, topera egiten dau. Gozamena da!

**Zaintza-lan handia emongo dabe…**

Bai, baina gustatzen jatanez, erreza da. Urtean txerto bi jarri behar jakez: bata, heste-zizareen kontrakoa, eta bestea, katarroaren aurkako. Perrak hiru hilabeterik behin aldatu behar jakez.

**Nondik ibiltzen zara zaldiakaz?**

Zamudion aukera asko dago: Santamañe aldea… Baina Geldo edo Daño aldetik nahiago dot ibili, bertako bideak askoz be egokiagoak diralako zaldiz ibilteko. Beste lurralde batzuetan, Frantzian adibidez, bideak askoz hobeto prestatuta dagoz zaldiei begira. Han milaka eta milaka kilometro egin neikez zaldi ganean arazo barik; berton, barriz, hainbat oztopo topatuko neuke, Gorbeiara joan ezkero. Amets bat daukat…

**Zein?**

Ametsa baino, erronkea da: Done Jakue Bidea zaldiz egitea. Eta gehien jota hemendik urte bira egingo dot. Gazteluko bidetik joango naz, izan be bertako bideak erosoagoak dira. Badakit ez dana erraza izango, guk lez animaliek be edan, jan eta atsedena hartu behar dabelako, eta aurretik hainbat detaile zaindu behar dira.

**Promesik egin dozu, ala?**

Ez, zaldiz ibilteak emoten dauan gozatu hutsagaitik egingo dot. Zaldiz ibiltearen gauzarik politena beste pertsona batzukaz egitea da, eta denbora luzean, ganera. Eta nik holan egiteko gogoa daukat.



Lourdes Goiri, Begoñako Basilikako sakristaua

# “Eleizan nabari da e

**Estetizista izan da, bulegaria, mezularia, garbitzailea… eta uztailetik hona sakristau dabil Begoñako Basilikan. Lourdes Goiri zamudioztarragaz eleizaz eta bere lanaz izan gara solasean.**

**Zergaitik bai esan behar horri?**
Lagun batek komentatu eustan Begoñako Basilikan sakristaua behar ebela eta ea animatuko nintzan. Bertako abadeagaz berba egin neban eta nire baldintzak azaldu neutsazan: 8 orduko beharra gura neban, astelehenetik barikura arte. Ados jarri ginan eta hor nabil, pozik. Jaiegunak aste barruan diranean, lan egin behar izaten dot; hata guzti be, horreek beste momentu baten hartzeko aukerea dot, oporretan adibidez. Zapatu eta domekako mezen zerrenda idatzita izten dot, eta holan konpontzen gara.

**Fedeak be zerikusia izango eben horretan?**
Bai, jakina. Fede barik ez dozu ezer egiten. Ez dakizu ezta haizeak nondik joten dauan be.

**Zertan datza beharra?**
Telefonoari adi egon behar dot, batez be. Egunean zehar lotu barik jotzen dau: “Aizu, noz egin daiket berba parrokoagaz?”, “Noz da mezea?”… Horrezaz ganera, mezak idazmakinaz idatzi behar dodaz, ezkontzetarako-eta paperak egin… Abadeak mezean eroaten dauan arropea be prestatu behar dot… Oso gitxi laguntzen dot mezatan. Abadeari argi itxi neutsan hasiera-hasieratik: “Inoiz irakurri behar bada, irakurriko dot; baina abestu, ez, eh?”.
Gustura egiten dodan beharra da. Hartuemon zuzena daukat jendeagaz eta, egia esan, ona naz jendeagazko hartuemonetan. Inguruan dodazanakaz be oso pozik nago. Askotan egiten dogu berba gure artean, eta familikoak izango bagina bezala da.

**Zu baino lehenenago egon zan sakristaua be emakumea zan eta bertan 11 urte emon ebazan. Hori ez da adibide bakarra; gaur egun emakume asko dira sakristauak … Eta diakonoak be hartu behar izan dira eleiza batzutan. Pixkanaka-pixkanaka, baina emoten dau Eleizak txipa aldatzea baino beste erremediorik ez dauala izango.**
Bai, zabalagoak izan beharko dabe; osterantzean, bakarrik geldituko dira. Gaur egungo Eleiza ez da atxinakoaren moduan: lehen eurek esaten ebena eztabaidaezina zan eta orain, barriz, gehiago entzuten deuskue. Hata guzti be, atxinako mezu eta hitzaldiakaz jarraitzen dabe, eta ez dabe jakin gazteengana ailegatzen, adibidez. Eleiza gaurko egunetara eta gazteengana moldatu beharko eban.

**Zein da emakumearen presentzia Begoñako Basilikan?**
Gehienak emakumezkoak gara: Caritas taldean dagozanak, katekesia emoten

*Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Gaizka Eguskiza*

# makumearen eskua”

dabenak (gizonezko bakarra dago)… eta mezan laguntzeko be hiru gizonezko baino ez dagoz. Egia esan, gure eritxia kontuan hartzen dabe, asko, galdetu egiten deuskue hainbat gairen ganean… Gauzak gure erara egiteko aukerea emoten deuskue; hata guzti be, abadeari eta erretoreari galdetu behar jake beti: “Zer deritxazue hau holan egiteari?”… Normala da, izan be eurak dira arduradunak eta erantzukizun nagusia dabenak. Beste alde batetik, emakumearen eskua nabaria da eleizan…

**Zertan?**

Abadeak gizonezkoak dira azken baten, eta beste ohiturak batzuk dabez. Esate baterako, bardin deutsie estola txarto jantzita dabela mezea emotera urtetea, eta gu beti euren atzetik ibili behar: “Ondo jantzi!”. Loreen asuntoa be beste adibidea da: guk ederresmen handiago dogu. Hainbat adibide dagoz.

**Zein da Eleizagaz izan dozun hartuemona?**

Nire sineskizunak txikitatik izan dodaz; gurasoengandik jaso dodaz. Monjen ikastetxean ibili nintzan eta Zamudioko eleizan askotan lagundu dot. Nagusientzako katekesia be emon dot… Eta arazoak eta haserrealdiak be izan dodaz, ez pentsau! Baina oso burugogorra naz eta fedea ez deust inork kentzen. Jainkoarengan sinesten dot eta Begoñako Basilikan, amatxuagaz, lan egitea gauza itzela da niretzat.

**Beraz, ez dozu inoiz fedea galdu…**

Ez, eta garai latzak bizi izan dodaz, benetan. Baina horreek probatzat hartzen dozuz. Fede barik, bizitzan aurrera egite gauza ez zinan izango. Fedeak goizean ohetik altxatzeko indarra emoten deutsu.

> *“Eleizak ez dau jakin gazteengana ailegatzen; gaurko egunetara moldatu beharko eban”*

# Gutariko bat zarelako,

**Bruce Springsteen ikustera eramango zintugula esan genizun eta hitza bete dugu, zuretzako hainbat opari genuela esan genizun eta hori ere egia izan da. Aikor!lagun guztien artean zeu zaitugu irabazle; eta horrela izan ez bada, zortea zure alde egon daiteke hurrengoan. Orain bizitza beste ikuspuntu batetik ikusten duzu.**

**Korrontzi taldearen diskoa: Angel Garitano, *Ondarru***

*Bizitza gogorra da askotan; musikak gozoago egiten du*

**'Lauburu' mahai-jokoa: Eider Lago**

*Aspertuta zeunden; lagunekin jolasteko aukera izango duzu hemendik aurrera*



**Mikel Zarateren *Etorriaren zorabioz* liburua: Garikoitz Isasi**

*Abentura bila zabiltza; hala ere, atsedenaldirako uneak ere nahi dituzu*

# Txorierrikoa zarelako

**Bruce Springsteenen kontzeturako sarrera bi: Arroeta mendi taldea (saria Jon Aroztegik hartu du taldearen izenean)**

*Ez zenuen inongo itxaropenik, baina batzuetan fedea izan behar da*

**Joseba gotzonen diskoa: Jasone astola**

*Zaratak mina egiten dizu; lasaitasunaz badakizu gozatzen*

**Neü taldearen diskoa: Txerra rodríguez**

*Bizitza patxadaz hartzen duzu, baina batzuetan esperientzia gogorrak nahi dituzu*

## José eta Ángel Urrutikoetxea, CD Loiuko presidente eta presidenteordea

# “Apur bat eroa izan behar da klub txikietan agintari ibiltzeko”

**Iaz gorriak ikusi zituen mailari eutsi ahal izateko, baina aurten primeran dabil CD Loiu. Gaur egungo egoerari begirada eman diogu, lehengusu bikote batekin batera: José ‘Urti’ eta Ángel Urrutikoetxea, CD Loiuko presidentea eta presidenteordea hain zuzen ere.**

*Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza*

Betidanik daude klubean *Urti* eta Ángel: jokalari, entrenatzaile eta orain presidente eta presidenteorde ari dira.

**Primeran doaz CD Loiuko taldeak, ezta?**
Lau taldeak dabiltza ondo, baina mailari eustea dugu helburu. Gainera, oso goiz da oraindik. Neguaren ondoren ikusiko dugu non gauden eta orduan esango dugu noraino hel gaitezkeen: goian bagaude igotzen saiatuko gara, zalantza barik. Plantilla gaztea, ona eta zabala dugu. Gure kontra jokatu duten arerioak ere ez dira gu baino hobeak izan. Beste alde batetik, B taldean ere jokalari onak daude, eta hori lagungarria da igoerari begira.

**Gazteen taldea lehenengoa dabil eta gol piloa sartu ditu…**
Lehenego partidan 9 sartu zituen, hurrengoan 4 Derioren kontra… Jokalari gehienak gure kadete mailako taldetik datoz eta iaz igotzea lortu zuten. Urte batzuk daramatzate elkarrekin jokatzen eta hori nabaritzen da berdegunean.

**Lehenengo taldeko jokalari batzuk beheko taldeen entrenatzaile aritu dira betidanik. Zer deritzozue horri?**
Inplikazioa oso garrantzitsua da. Lehenengo taldeko jokalari batzuk aspaldian daude gurekin eta horiek taldearen liderrak dira eta inplikazioa sortarazten dute. Eta futbolean jokalarien arteko laguntasuna eta elkartasuna oso garrantzitsuak dira. Eta, zorionez, hori guztiori guk badugu.

**Txorierriko herri guztietan talde bana dago, behintzat, eta hemen, Loiun, lau. Hain jende gutxi bizi dela kontuan hartuta, ez zenukete hobe talde bakar bat osatzea Txorierri mailan?**
Mila aldiz hitz egin dugu horren inguruan, baina oso zaila da ados jartzea. Izan ere, bakoitzak bere kolorea du. Horrek ez du esan nahi gure arteko harremana txarra denik; guztiz kontrakoa. Hain gertu egonda, lehia berezia dago gure artean, baina besterik ez. Loiuko ikastetxeekin ere ondo moldatzen gara, baina bertan jokatzea erosoagoa da umeen gurasoentzat, kotxez eraman behar ez dituztelako. Ikastetxea amaitzen dutenean, ordea, jokatu nahian etortzen zaizkigu batzuk.

**Athleticekin lankidetza-hitzarmena duzue. Lagundu egiten dizue horrek aurrekontua borobiltzeko?**
Eta Udalak eta Olarrak ere laguntzen digute, baita bazkideek ere, baina 200 baino ez direnez, oso gutxi da. Guk ez diegu jokalariei ordaintzen, lehen taldekoei izan ezik.

**2003-04 DENBORALDIAN LEHENTASUNEZKO MAILARAKO IGOERA LORTUTAKO TALDEA:**
**Zutunik:** Pascual (e), Gorka, Jorge, Arkaitz, Nestor, Alex, Andoni, Katxurri, Jon Ander, Txelu, Gorka, Edu, Aritza (2. e). **Makurtuta:** Ibon, Edu, Javi, Urrotz, Urko, Gari, Gorka, Alberto, Ángel (d)

## 65 urte ditu CD Loiuk

CD Loiu 1942an sortu zen. Egia esan, 1928an hasi ziren jokatzen, baina Gerra Zibila zela-eta, taldea desegin behar izan zen. Gaur egun lau taldek osatzen dute kluba: A taldea Lehentasunezko mailan, B eta gazte taldea Bigarrenean eta kadetea Lehen mailan. Guztira, ia 100 jokalarik defendatzen dute astero kamiseta zuri-gorria. 200 bazkide ditu klubak eta Elotxelerriko zelaian jokatzen dute.

60 euro jasotzen dituzte irabazten duten bakoitzean, eta horren arabera gure aurrekontua handiagoa edo txikiagoa da. Pentsa ezazu, garaipena lortzen dugun bakoitzean, 18 jokalariei, 3 teknikariei eta masajistari guztira 1.200 bat euro ordaindu behar diegula. Orduan, urte hasieran igoera lortuko bagenu moduan aurreikusten dugu zenbat puntu behar ditugun. Aurten, esterako, horrela jarraituz gero ez dakit diru nahikorik egongo den.

**Gogorra al da horrelako kluba kudeatzea?**

Apur bat eroa izan behar da talde txikietan agintari ibiltzeko. Jende gaztea falta da eta hemen egunero dago entrenamenduren bat; beraz, arratsaldero egon behar da zelaian. Nahi duenak gauzak egiten ditu, behar diren gauza bakarrak zaletasun handia eta nahi izatea dira.

> *“Mailari eustea dugu helburu, baina neguaren ondoren goian bagaude igotzen saiatuko gara”*

> *“Espero dugu datorren urtean belar artifizialezko zelai berriaren lanak hastea”*

**Etorkizuna zelan ikusten duzue?**

Kirol arloan pozik gaude talde guztiekin eta, ziurrenik, oso denboraldi ona egingo dugu maila guztietan. Beldur diogu kadeteek egingo dutenari, jokalari gehienak berriak baitira, baina ez dira txarto hasi eta baliteke mailari eustea. Bi hilabete barru, agian, beste gauza bat esan beharko dut, baina une honetan baikor gaude.

**Kirol arloarekin zelaiak badu zerikusirik, noski, eta laster harezko zelaiaren ordez belar artifizialezkoa jarriko dizuete Udalak, BBK-k eta Aldundiak…**

Neurriak hartu dituzte eta espero dugu datorren urterako lanak hastea. Harezko zelairik ia ez dago Bizkaian. Horrek baldintzatu egiten gaitu, A taldea izan ezik gainontzekoek bertan entrenatzen dutelako. Eta gero belar artifizialezko zelaietara joaten direnean gure jokalariek egokitu behar izaten dute, holakoetan pilota azkarrago doalako.





# 200 txorierritar baino gehiag hartuko dute konpostatze-ka

**Txorierriko Mankomunitateak politika aktiboa darama aspalditik gaikako hondakin-bilketaren arloan. Orain beste pausu bat eman, eta etxeko konpostatzeri buruzko kanpaina jarri du abian. Kanpaina lorategia edo ortua duten txorierritarrei zuzenduta dago, eta jadanik 200 eskaeratik gora jaso dituzte.**

Txosten batzuen arabera, zabor-poltsan dauden hondakinen %30a hondakin organikoak dira; hala ere, portzentaje hori askoz handiagoa da beste informe batzuetan.

Hondakin organikoek kalte handiak sortzen dituzte naturan, horiek kontrol barik utziz gero. Horrela, bada, lurra eta errekak kutsatzen dituzten lixibatuak sortzen ditu holakoen deskonposizioak. Era berean, berotegi-efektuko gasak –metanoa eta karbono dioxidoa, esate baterako- sortzen ditu. Gas horien pilaketak kiratsa sortzen du eta leherketak eta suteak ere eragin ditzake.

Ingurumen Sailaren datuen arabera, hiri-hondakinen erdia konpost bihurtu daitezkeen hondakin organikoak dira.

## Zer da konposta?

Materia organikoa era naturalean deskonposatzean sortzen den produktua da, eta kospostaren onuren artean hurrengook aipa ditzakegu: teknika ekologikoa eta merkea da, ongarri naturala da eta landatutako produktuak osasungarriagoak izatea dakar. Ureztatzeko ura aurreztu ere egiten du. Konposta prozesu biologikoa da eta sei hilabete irauten du gutxi gorabehera.

## Zer konposta daiteke, eta nola?

Lorategiko edo ortuko hondakinak nahastuta konpostatuko dira, matrize harroa eta, elikagai dagokienez, orekatuta lortzeko.

Hondar lehorrak, adarrak eta enborrak denbora luzean gorde daitezke. Ondorioz, bilduta izan daitezke eta estruktura ematen duten elementuak behar direnean botako zaizkio nahasketari. Sukaldeko hondarrak eta lorategiko hondar berdeak, berriz, arin deskonposatzen dira. Beraz, lehenbailehen sartu behar dira prozesuan, ustel ez daitezen. Arrautza-oskolak, itsaskien hezurrak, pinaburuak eta abarrak nahasketara txikitua botatzea komeni da.

Materialak geruza ezberdinetan jarriko dira. Oinarrian material lehorrarekin –adarrak eta enborrak, lastoak…- egindako 10cmko altuerako geruza ipiniko da, tontorra drainatuta eta aireztatuta egoteko. Horren gainean etxeko eta lorategiko hondakinekin egindako 15 cm baino gutxiagoko geruzak jarriko dira, material gogorragoekin uztartuz.

## Egindako konposta egokia da?

Materia guztia uniformea izan behar da, deskonposatzen dagoen zatirik gabe. Konpostak giro-tenperatura eta usain ona izan behar ditu. Bero badago, materia organikoa oraindik deskonposatzen ari dela adierazten du horrek.

## Non erabili?

Konpostak lurzoruaren egitura hobetzen du eta lurzoru buztintsuak hobatzeko erabil daiteke. Era berean, lurzoru hareatsuak egituratu egiten ditu eta higadura gutxitzen laguntzen du, baita lurzoru emankorrak ez galtzen ere. Horrezaz gainera, ongarri bikaina da nekazaritzarako, ingurune naturalari bere elikagaiak itzultzen dizkiolako.

Nahi duzun lekuro iristeko arazoak dituzu?
Elektrolaritzako gogokoak
Eskuhutz gogokoak
Plastikoak
Arazoei agur...
ARLAN
902 54 08 54

# ok parte npainan

Zenbat eta etxe gehiagok konposta egin, orduan eta merkeagoak izango dira biltze, garraio eta tratamenduaren kostuak.

Lorategia edo ortua duten etxebizitzek pisuek baino hondakin organiko gehiago sortzen dute. Hondakin horiekin etxean erabiltzeko konposta egin daiteke, bildu eta tratamendua jaso behar duen materia organikoa ere gutxituz.

Norberak ezinbesteko papera du behar horretan, eta Txorierriko Mankomunitateak ortua edo lorategia duen txorierritar bakoitzarengana jo du, etxeko konpostatzeari buruzko kanpainaren berri emateko. Gutun baten bidez teknika hori zertan datzan eta horren onurak zeintzuk diren azaldu zaizkie, eta kanpainan parte hartzen duten guztiek konpostatze teknikari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa, etxeko konpostatzearen gaineko gida eta konposta egiteko gailua eta behar diren osagarriak jasoko dituzte doan. Horrezaz gainera, aditu batek aholkuak eman eta zalantzak argituko dizkie prozesu osoan zehar. Kanpaina oso arrakastatsua izan da

eta parte hartzeko 200 eskaera baino gehiago jaso dute dagoeneko.

Beste alde batetik, etxeko konpostatzearen gaineko hitzaldiak ematen hasi dira. Jadanik Derion, Zamudion eta Sondikan egin dituzte, eta gainontzeko herrietan hurrengo egunotan izango dira:

**Loiun:** azaroaren 26an, 19:30ean, Lauroetako Ingurumen Gelan.

**Larrabetzun:** azaroaren 29an, 20:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

**Lezaman:** abenduaren 3an, 19:30ean, Kultur Etxean.



# Elebila, google euskalduna

Euskararen erabilera gero eta zabalagoa da gaur egungo gizartean. Internet gizartearen isla da neurri batean, eta horren ondorioz, han ere gero eta garrantzi handiagoa ari da hartzen gure hizkuntza. Izan ere, sarean ba omen dira euskaraz idatzitako 4 milioi webgune. Haietan idatzitakoak erabat ahaztuta geldi ez daitezen, Elebila bilatzaile euskalduna sortu dute lankidetzan Eusko Jaurlaritzak eta hizkuntza ingeniaritza arloan garapen berritzaileak egiten dituen Eleka enpresak. Helbide elektronikoa **www.elebila.eu** da.

Erdarazko bilatzaile arrunta izango balitz bezala erabiltzen da Elebila: internauta bakoitzak, interfazea gaztelaniaz edo euskaraz konfiguratzeaz gain, orrialdeko zenbat sarrera agertzea nahi duen ere aukeratu ahal du. Elebilak duen muga bakarra hau da: ezin da argazkirik bilatu.

"Elebila euskaldunon webgune bilatzaile nagusia izatea da xedea", dio Iñaki Irabazabalbeitia Eleka taldeko koordinatzaileak Berria egunkariari emandako elkarrizketa batean. Solasaldi berean, Irazabalbeitiak euskara garatzeko sareak duen garrantzia azpimarratu du. "Euskararentzat eta gainerako hizkuntza txikientzat Internet da bidea munduan presentzia irabazteko; are gehiago, Eusko Jaurlaritzaren ustez, euskara normalizatzen bada, hori sarean izan behar da, eta ni bat nator horrekin".

# Zorionak ziberespazioko irribarreari!

'Smiley'k, hau da, ziberespazioko lehenengo 'emotikonoak' ':-)' 25 urte bete ditu. Ikono sinplea da: puntu bi, gidoi ertaina eta parentesi bat, baina idatziz komunikatzeak dakartzan mugak gainditu eta hitzik gabeko komunikazioa iraultzatu du ziberespazioan.

Scott E. Fahlman Pittsburgheko Carnegie Mellon Unibertsitateko irakasleak 'Smiley' asmatu zuen 34 urte zituela. Garai hartan jende gutxik erabiltzen zuen ordenadorea, eta are gutxiago korreo elektronikoa, baina Carnegie Mellon Unibertsitatean, ordez, nagusi ziren berriztapena eta elkarrizketa elektronikoak.

Baten batek mezu bat agindu zuen Unibertsitateko buletin elektronikora, igogailu bat kutsatu zela esanez.

Txantxa horrek sarean umoreak izan behar zuen mugaren gaineko eztabaida zabaldu zuen, eta Fahlmani ideia bat otu zitzaion mezu dibertigarriak azaltzeko: ':-)' ikonoa. Bere proposamena 1982. urteko irailaren 19an eskegi zuten Unibertsitateko buletin elektronikoan. Bertatik beste unibertsitateetara, herrietara, foroetara, mundu guztira… zabaldu zen.



# Derio elizatetzat jo zuten duela 319 urte

**Irailaren 24a, astelehena, derioztarrek pozik ospatu zuten eguna izan zen, Gernikako Batzar Nagusiek Derio elizatea egun horretan aintzat hartu baitzuten orain dela 319 urte. Hurrengo lerrootan Andres Bañosek horren gainean idatzitako artikulua jaso dugu. Artikulua Beitu Derioko udal aldizkarian argitaratu zuten irailean.**

1688. urteko irailaren 24a. Hori data inportantea izan zen Derio herriarentzat, egun horretan Gernikako Batzar Nagusiek eskubide osoko elizatetzat onartu zuten-eta. Gehienek aldeko botoa eman zuten, eta Deriori 72. eserlekua eta botoa egokitu zitzaizkion. Uribeko Merindadearen barruan 32 zenbakia eskuratu zuen. Horrela, Derio Batzar Nagusietan sartu zen azken elizatea izan zen, harik eta XIX. mendearen erdialdean Bedia onartu zuten arte.

Batzar Nagusietan lekua izatea ez zen erraza, eta elizate batzuek ez zuten inoiz lortu. Zergatien artean hauek aipa daitezke: biztanle gutxi zituztelako, tirabiran zebiltzalako lurrak zirela-eta, edo beste herri batzuetatik desanexionatu zirelako Batzarren baimen barik. Azken motibo horrengatik, adibidez, ez zuten Basauri elizatetzat hartu Arrigorriagatik banandu zenean.

**Batzar Nagusietan parte hartzeko zailtasunak**

Derio nahiko berandu sartu zen Gernikako Batzar Nagusietan, eta horretan lehen aipatutakoak bezalako zergatiek eragina izan zuten, ziur asko.

XVI. mendetik behintzat Derioko lurzati handi bat Mungiarena zen, eta, 1883. eta 1888. urteetan gertatu zen moduan, baliteke hango erregidoreak ahaleginak egin izana hiriak elizatea anexiona zezan. Hori ere Batzar Nagusiek Derio lehenago onartu ez izanaren arrazoia izan liteke.

Gernikan ospatu zuten bilkuran eta aktan azaltzen den moduan, Antonio Miguel Zaldua eta Ugarte jauna, Bilboko biztanlea eta Derioko erregidore leiala zenak hala eskatu zuen: "Derio eta horko biztanleak eta etxeak aintzat hartzea". Horrela, Derio Bizkaiko Jaurerriko aginteorganoetan sartu zen.

## "LAIA HOTEL MUSEOA"

*Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.*

*Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.*

*Fitness eta spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzia, dutxa inguratzailea eta infragorrizko ohea.*

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net


**Aurreko galderaren erantzuna:**
Ludoteka
**Irabazlea:**
Amaia Arrieta

## LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako asteburu batean gau bat pasa Laia Hotel Museoan, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne.

Hilabete honetako galdera zera da:

**Nortzuk joan dira Begoñara erromes?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikortxori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

**(Saria Laiaren eskaintza duzue).**



# Sukaldaritza

*Bakoren bazterra*

## Ur minerala

*Iñaki Suarez, sumillerra*

Nork esango zien greko, erromatar eta arabiarrei ur mineromedizinalak bainuetan eta gorputz-tratamenduetan erabiltzen jarraituko zenik, eta, horrezaz gainera, ontziratutako kontsumo-produktuen artean eskaerarik handiena dutena izango zela!

Diseinuko pieza bilakatuta eta lurrinontzien barruan aukera ematen digute udaberriko urez, glaziarrekoez, artesianez (sakonunetatik ateratakoak)… gozatzeko. Baina, zer dira? Nondik datoz? Zenbat mota daude?

Lurpeko urak dira. Mineral, haitz eta lurpeko beste gai batzuekin luzaro egoten dira elkar ukituz, eta mineraltasuna ematen dieten gatz mineralak eta beste gai batzuk xurgatzen dituzte. Osagai guztiak era naturalean hartzen dituzte, iturburu edo putzuetatik jarioz.

Horrela, hiru ur mota ditugu kontsumorako: ur mineral naturala (bakteriologia aldetik osasungarria da eta mineralak ditu. Garbia da eta eraginak ditu gorputzean), iturburuko ura (edatekoa da, osasungarria mikrobiologia aldetik, baina aurrekoak baino osagai mineromedizinal gutxiago ditu) eta ur prestatuak (tratamendu fisikokimikoa jaso dutenen kontsumorako). Ur gasgabeak eta gas karbonikodunak ere bereiz ditzakegu. Gas karbonikoa naturala edo erantsia izan daiteke.

Ur mineral naturalak kaltzioa, sodioa, magnesioa, fluorra, potasioa eta iodoa ematen dizkio gorputzari, besteak beste. Gure osasunaren arabera, onuragarriagoak izan daitezke, edo ez. Adibidez, sodio ugariko ura ez da komenigarria tentsio-arazoak dituztenentzat. Horregatik, inportantea da konposizioari adi egotea. Mineral-eduki arineko urak oso osasungarriak dira orokorrean. Batzuek eta besteek duten mineralizazio ezberdinak eragina izango du zaporean.

*Etxeko sukaldaritza*

## Barazki-zopa

**Osagaiak (4 lagunentzat):**

–100 g barazki desidratau, juliana erara moztuta
–1/4 zankarroi
–1/4 oilasko
–Azenario bi
–Porru bat
–100 g garbantzu (aurreko egunean beratzen ipini)
–Tomate heldu bat
–Perrexila
–Gatza

*Maite Lekerika, sukaldaria*

**Prestatzeko era:**

Barazki desidratauakaz izan ezik, beste osagai guztiakaz salda on bat prestauko dogu: horretarako, ordubete inguru izango doguz presio-eltzean. Saldea iragazi, eta surtan ipiniko dogu. Irakiten hasten danean barazki deshidratauak bota, eta hamar minutuan izango dogu surtan. Okela zatiak gehitu eta on egin!

# GOMENDIOAK

***Amagoia Gezuraga***

## LIBURUAK

**NAGUSIAK**
**Ero hiria**
*J. Cillero*
**Dioramak**
*P. Iturregi*
**Balentxi hamalaugarren apostolua**
*J. Zalakain*
Idazlearen arabera, hamalaugarren apostolua Balentxi apaiza da. Behartsuen hurkoa eta preso guztien anaia.

**HAUR ETA GAZTE**
**Irudimena hegan**
*K.Santisteban*
**Tximu bat klinikan**
*I. Zubeldia*
**Harpajolea**
*J.M. Elespuru*
Irudi ikusgarri bat jarri dute plazan, Nicanor Iztueta harpajole famatuaren omenez. Baina inauguratzera doazenean, harrapatu egin dutela konturatu dira. Nor ote da lapurra? Xerapi dendariak eta Urrufiño zapatariak ikertuko dute kasua.

## MUSIKA

**Gaztea, the singles**
**Izenbururik gabeko istorioak**
*Laia*
**Musiques eta promenades en Pays Basque**

# DENBORA PASA

## LETRAZOPA

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | T | I | H | P | Ñ | U | L | N | P | A | G | O |
| Z | Y | A | T | X | I | K | O | R | I | E | S | P |
| R | J | E | S | U | A | L | T | T | P | F | A | O |
| I | Y | S | O | G | X | H | K | P | E | O | E | H |
| D | F | A | H | B | E | E | L | G | R | Z | T | R |
| K | I | B | F | Ñ | G | A | F | M | R | Ñ | A | Y |
| J | U | A | D | D | I | L | E | N | A | J | M | P |
| E | K | L | B | Ñ | E | N | H | G | M | Y | O | G |
| D | X | A | E | G | U | X | T | E | L | I | T | L |
| Y | A | K | A | K | F | E | M | R | B | A | M | B |
| J | B | X | S | U | N | T | J | S | M | D | S | K |
| E | S | K | A | R | O | L | E | A | Z | R | X | A |

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | R | R | E | M | O | L | A | T | X | E | A | H |
| A | G | T | P | E | B | J | D | O | L | B | L | P |
| S | B | F | D | O | F | A | F | I | Z | U | A | T |
| R | I | E | A | P | K | R | D | J | O | P | K | H |
| H | S | X | R | Z | U | Z | R | T | M | E | L | U |
| Z | P | H | I | J | T | K | A | A | P | K | M | X |
| T | D | O | B | Ñ | D | A | L | O | G | J | N | Y |
| G | E | B | R | E | R | N | K | B | L | M | X | E |
| Ñ | S | Ñ | U | R | M | J | N | A | O | I | K | I |
| A | F | N | E | T | U | Ñ | S | N | R | F | M | B |
| Y | G | D | X | N | Y | E | Z | Y | G | E | I | R |
| K | I | N | P | U | L | L | E | A | N | H | B | A |

Baserrien soloekaz amaitzeko ia gai zaren **soloetan hartzen diren 7 ortukari** aurkitzen* goiko letrazopan. Kontutan hartu egizu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

*Ezkerraldean Aikor! 64. zenbakiaren erantzuna. Soloan hartzen diren 7 gauza.*



# Agenda

## Antzerkia eta filmak

**Loiu**
–Arbolen kontu kontalaria. Azaroaren 28an, 18:00etan, liburutegian. Sei urtetik gorako haurrei zuzenduta.
**Zamudio**
–*Amama Pantxikaren altxor ezkutua* umeentzako antzezlana. Abenduaren 2an, 12:00etan, Zamudiotorren.
**Lezama**
Ipuin kontalaria. Abenduaren 13an, 18:00etan, liburutegian. Umeentzako Irakur Suspertze Programa barruan.
**Larrabetzu**
Sorginak kale antzerkia. Abenduaren 21ean, 19:00etan, Andra Mari kalean. Goloka taldearen eskutik.

## Erakusketak

**Derio**
–Gimnastika erritmikoaren erakustaldia. Abenduaren 16an, 18:30ean, kiroldegian. Miragarri taldeak antolatuta.
–Derioko IV. Argazki Lehiaketaren lanak. Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra, Larrabarri baserrian. DATk antolatuta.

## Hitzaldiak

**Lezama**
–Idazle bat. Abenduaren 20an, 18:00etan, Liburutegian. Umeentzako Irakur Suspertze Programa barruan.
**Larrabetzu**
–Feng Shui eta Geobiologia. Abenduaren 13an, 18:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

## Irteerak

**Derio**
–Gorbeia. Abenduaren 17an, 08:00etan, Batzokian. Untza mendi taldeak antolatuta.
**Zamudio**
–*Don Kixote* euskarazko filma ikustera, abenduaren 15ean. Izen-ematea: abenduaren 13ra arte.
**Lezama**
–Trianoko Mendiak, abenduaren 9an, Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

## Kontzertuak

**Derio**
–Larrabetzuko Musika Eskolaren kontzertua. Abenduaren 18an, 18:30ean, Gurea Aretoan.
**Larrabetzu**
–Gabonetako kontzertua, abenduaren 20an, Andra Mari elizan.

## Lehiaketak

**Loiu**
Gabonetako Postalen XIV. Txapelketa. Lanak abenduaren 14ra arte aurkez daitezke udaletxean. Oinarriak ere bertan.
**Derio**
–Hiruko areto-futbola (gizonak). Abenduaren 21ean, 19:00etan, kiroldegian. Pozgarri FSTk antolatuta.
**Larrabetzu**
–Gabonetako Postalen IV. Lehiaketaren sari-banatzea, abenduaren 14an, 17:30ean. Ostean, Zaki Magoa.

## Bestelakoak

**Txorierri**
–Euskadi-Katalunia futbol partidara joateko izen-ematea. Galdetu zure udaletxean.
**Derio**
–Gabonetako bingo berezia. Abenduaren 19an, 19:30ean, Nagusien Etxean.
**Zamudio**
–Urte amaierako bazkaria. Abenduaren 15ean, 14:30ean, Aramendi jatetxean. Adintsuen Elkarteak antolatuta. Sarrerak abenduaren 1ean eta 2an jarriko dira salgai.
–Olentzero ekitaldian izen-ematea: abenduaren 21ean, 17:00etatik 18:00etara, ludotekan.
–*Gabon Kanta* antzezlan ikusteko izen-ematea: abenduaren 15era arte. Antzezlana abenduaren 22an izango da Sondikan.
–Udal ikastaroetan izen-ematea: abenduaren 21era arte.
**Lezama**
–Liburu Azoka, abenduaren 17tik 21era bitartetan, liburutegian.
**Larrabetzu**
–Umeentzako Gabonetako programan izen-ematea: abenduaren 10etik 13ra, liburutegian.
–Udal ikastaroetan izen-ematea: abenduaren 17tik 19ra, liburutegian.



# OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da





Gizartearen, eure pertsonen inguruabarren eta hurbilketako jendearen bilakaera, berrikuntza eta inguramenarekiko errespetuaren bidez. Rikelmenaren alde bilatu.

ITP

GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.

Ideien, planen eta esperientzien elkartrukeak giro egokia behar du, ospakizuna indartzen duen eszenatoki bat, hain zuzen ere

# Ongi Etorri Azurmendira



Enpresen ospakizunak · Autore sukaldaritza · Bodega · Ezkontzak · Kafetegia

Azurmendi Konplexua
Legina Auzoa  Larrabetzu
Telefonoa: 944 55 88 66
www.azurmendi.biz

AZURMENDI